

B

BARREN



“Artistok ilargian bizi gara”

Arturo Andrade, eskultorea eta luthierra



Garajeak salgai Elgoibarren

VISESA sozietate publikoak salgai jarriko ditu, azalera-eskubidepean, 59 garaje libre. Elgoibarko Santa Ana kaleko 9-17 zenbakietako 99 BOEren sustapenari dagozkio.

>> Partzelen eta erosteko prozedurari buruzko informazioa nahi izanez gero, interesdunek Visesaren Bezeroarenganako Harrera Bulegora jo dezakete. Hona helbidea: Pinares plaza 1, 4. solairua, Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa). Telefonoa: 943 32 63 40. Posta elektronikoa: donostia@visesa.com

>> Eskabideak ekainaren 25eko 14:00ak aurretik aurkeztu beharko dira Visesaren Gipuzkoako Bezeroarenganako Harrera Bulegoetan.

www.visesa.com web gunean ere eskura daiteke informazioa



IKASI INGELESA DIBERTITUZ benetan!!



IKASFUN!!!
UDAKO PROGRAMA

IKASI INGELESA DIBERTITUZ benetan!!

- 📌 Ingelesa ikasteko modurik dibertigarriena.
- 📌 Programa trinkoa.
- 📌 Dinamikoa eta praktikoa.
- 📌 Ingelesez komunikatzen ikasiko duzu.
- 📌 Talde eta lan-metodo ugari.
- 📌 Adin taldeak: 5-7, 8-10, 11-12, 12-14 urte.

KURTSOA	MAILA	IRAUPENA	PREZIOA
Behe-mailako moduloak ikasfun	0tik 10erako maila 5-14 urte	66 ordu (3 ordu egunean)	200 euro
Goi-mailako moduloak	7tik 10erako maila First	44 ordu (2 ordu egunean)	261 euro

IKASFUN: 2 ordu egunean..... 175 euro
Ordubete egunean..... 125 euro

GOI-MAILAKO MODULOAK: 3 ordu egunean..... 396 euro
Ordubete egunean..... 135 euro

Borroto pasealekua, 18 AIETE
20009 DONOSTIA
Tel: 943 31 33 77
E-posta: donosti@kensington-sl.es

San Inazio kalea, 4
20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 02 36 - Faxe: 943 74 35 12
E-posta: elgoibar@kensington-sl.es

Mendia eta herria

Aitaren grinak erakutsi dit mendirako bidea. Hasiera batean, motxila gorrian zure kokoteari begira joaten nintzen, aitta. Eskutik helduta, kristoren pelmada ematen geroago. Gogoratzen, aitta? Bejondeizula. Urteak aurrera zure orpoen joan-etorriari so, eta zure aurretik azken garaietan. Kalamuatik, Xoxotetik eta Zelatungo erromeriatik Pirinioetara eta Alpeetara.

Bueltan, mendiaren ekarpenak asko eta ederrak izan dira. Bakea eta oreka, ihesbidea eta deskonexioa, izerdia eta superazioa. Lagunarte itzela ezin ahaztu.


Guraso askok darraite bide bera jorratzen, eta herrian, hau irakurtzen ari zareten edonork beste urte daramatza Morkaikok finalista eguna antolatzen. Urte pila, umeak papeletak lagatzen mendi tontorretan, eta uda aldera San Pedron txapela, medaila eta kopak txalo artean jasotzen. Badakizue nik baino hobeto, han izan zarete, protagonista izan zarete.

Bestalde, Ikastolak bere bideari ekin zion, orain denbora bat, finalista egun propioa abian jarritz. Eta hori dela medio, azken urteetan, harriduraz eta penaz ikusi dugu Morkaikon neska-mutil-gurasoen taldea azkar txikitzen, aurten behea jo dugun arte. Aurrera begira, perspektibak ez dira onak. Eskola publikoak bide berari

ekinez gero, jubilatuen finalista eguna antolatzeari ekin beharko dio Morkaikok.

Herrigintza eta auzolan bidez, izerdi ederrak botata, hainbeste ekimen aurrera atera direnean, jarrera banatzaileak zailak egiten zaizkit ulertzen. Indarrak batu beharrean banatu, helburua Elgoibarko gazteak elkartu eta mendira bidean jartzea denean. Morkaikon prest gaude erdi-bideen bila hasteko. *Jopitxujou!*

Aitzol Garmendia



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitze gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Ikastolak finalista egun propioari ekin zionetik, neska-mutil-guraso taldea txikitu egin da Morkaikon, aurten behea jo dugun arte”

**ARNALDO
OTEGI**
ELKARRIZKETATU
DUTE SALVADOS
PROGRAMAN
(LA SEXTA)



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

ARTURO ANDRADE

ESKULTOREA ETA LUTHIERRA

“Artistaren bizitzan benetako alabantza da jaiki eta zuk nahi duzun horretan jardutea”

Eskultorea da Arturo Andrade, baina biolinak egiten hasi zen orain hiru urte. Hala ere, ez da izan egin duen lehen instrumentua: izan ere, 1981 urtean laute bat egin zuen. “Bi gauzak paraleloki egin izan ditut, baina eskulturatik bizi naizenez, ezin nion denbora asko eskaini instrumentuak egiteari”. Kultur Etxe aurreko eskultura eta Morkaikoko belena dira, besteak beste, Elgoibarren ikusgai daude. Eta Musika Eskolako murala ere berak egindakoa da.



Zure izena eskulturarekin erlazionatu izan da orain arte, baina, orain, biolinak egiten hasi zara.

Betidanik gustatu izan zait biolina, eta orain dela sei urte jotzen ikasten hasi nintzen. Irakaslearekin biolinez berbetan hasi nintzen behin, eta instrumentua egiteko nekan ezagutza nahikoa zela konturatu nintzen. Doitzailea nintzen lehen, eta eskulturak egiteko teknika ere badaukat. Orain hiru urte, teknika ikasten hasi nintzen, eta ordutik biolinak egiten ditut.

Autodidakta zara orduan?

Oro har, bai. Liburu bat erosi nuen, eta biolin irakasleak ere apunte batzuk laga zizkidan. Internet bidez lortutako informazioa ere erabili dut teknika ezagutzeko. Beste luthier batzuk egiten duten lana ikusi dut, baina ez dut eduki alboan pertsona bat lana zelan egin azaltzen. Inprobisatu egin dut.

Lehenengo biolina kostatu egin zitzaizun?

Konplikatuena izan zen, esperimentua izan zelako. Biolinak egiteko egokia ez den egu-

rra erabili nuen merkeagoa zelako, eta hor konplikatu zen guztia. Erabili beharreko erremintak ere bereziak dira, eta pixkanaka nik neuk egin ditut prozesu bakoitzean erabili beharrekoak. Lehen biolina, beraz, zailena izan zen teknika ez nuelako ezagutzen, eta planoak ahal bezala interpretatu behar nituelako. Denbora asko ere ezin nion eskaini biolinari, eskultorea naizelako. Astialdia erabiltzen dut horretarako. Azkenaldian goizago jaikitzen naiz eskulturari denborarik ez kentzeko.

Zer behar da biolina egiteko?

Biolina egin, edozein egurrekin egin daiteke. Baina egur egokienak bi dira: biolinaren gorputza egiteko astigarra erabiltzen da, batez ere Bosniatik ekarritakoa; eta goiko pieza egiteko Alemania eta Italiatik ekarritako izeia. Mende askoan erabili dituzte egur horiek erresonantzia onena dutelako. Egur hori ordaindu egin behar da, eta biolinak saltzen badituzu irabaziak lortzen dituzu. Baina hasieran, biolinak egiten hasten zarenean, konplikatua da saltzea.

Azalduko duzu biolina egiteko prozesua?

Hiru eredu daude eta horietako bat jarraitzen duzu. Erabiliena Stradivariusena da. Egur egokiena hartu eta fondoko piezari forma ematen hasten zara, aroa kiribildu, eta gero tapa egiten duzu. Hiru piezak eginda dituzunean pegatu egiten dira. Hori egindakoan kirtena egin eta hori ere pegatu egiten da. Guztia muntatuta dagoenean, berniza ematen diozu: hori ere misterio bat da. Garrantzitsuena prozesu bakoitzari denbora eskaintzea da. Patxadaz egin beharreko instrumentua da biolina. Biolin asko egiten dituzenean, hasierako hiru ereduak albo batera laga eta eredu berriekin hasteko gogoia sortzen zaizu.

Beraz, patxadaz egindako biolin batek zenbat denbora eskatzen du?

Normalean zortzi ordu eskaintzen dizkiot eskulturari, eta, lehen esan bezala, astialdian egiten ditut biolinak. Baina hirugarrena egite-rakoan, biolin bat egiteko zenbat denbora behar nuen jakin nahian, egunean zortzi ordu eskaini nizkion. Hamabost egun behar izan nituen biolina egiteko. Baina ondo egindako biolin batek, eraikitzerakoan gozatutako batek, denbora gehiago eskatzen duela uste dut: 20-25 egun.

Biolinak salduz gero, egurraren prezioa amortizatzen diozu. Zuk saltzen dituzu?

Egia esan, jendeak ez daki biolinak egiten ditudala. Trinitate Jaietan ikusi zuten askok estreinakoz, eta harrিতa geratu ziren. Hasieran neure biolinak jotzeko asmoa nuen, eta horregatik hasi nintzen egiten. Batzuk egin ditut, eta orain hurrengo pausoa ematea pentsatu dut: saltzea. Trinitate Jaietan eman nuen pauso hori, baina, hasieran, oraindik ezaguna ez zarenean, zaila izaten da saltzea. Gainera Txinako merkatua dago eta oso kompetitiboa da. Artisau-lanak produktua garestitzen du, eta zaila da saltzea.

Momentuz, nire lana ezagutzera eman dut, eta ikusiko dugu saltzen dudana ala ez.

Noiz hasi zinen eskulturak egiten?

1981 urtean hasi nintzen. Doitzailea nintzen, eta ofizios aldatu nahi nuen. Bakarrik lan egitea gustatzen zait, eta eskultura azaldu zitzaidan. Egin nuen lehen gauza koilara bat izan zen, eta, hortik abiatuta, gauzak egin nitza-keela ikusi nuen. Liburuak irakurtzen hasi nintzen, eta konturatu nintzenerako eskulturak egiten nituen. Etxe zaharretako egurra oparitzen zidaten: artearen munduan hasten zarenean, ez duzu saltzen, eta, beraz, ahalik eta gastu gutxien edukitzen saiatu behar duzu. Sei urte eman nituen egurrekin.

“Inspiratzeko bi era daude: bat alproja eta mozokorra izanda, bestea, nik bezala, lanean ordu mordoan emanda”

Egurraz gain, burdina, brontzea eta harria ere landu dituzu.

Teknikak obsesionatu egiten naute. Material guztiak gustatzen zaizkit. Eskulturaren materialarekin gertatzen dena musikan instrumentuekin gertatzen da: musikari bati instrumentu guztiak jotzea gustatuko litzaike. Ni horrelakoa naiz, guztia ukitzea gustatzen zait: barruan daukadana espresatzeko material bat baino gehiago behar dut. Zenbat eta material gehiago ezagutu, hobeto, barruan espresatzeko baliabide gehiago daukazulako.

Zer materialek eskatzen du teknika gehien?

Gaur egun erreminta mordoan dago, baina, niretzat ezatseginena harria da. Erresistentzia jartzen du harriak, eta borroka egiten duzu berarekin; baina lanak gehiago betetzen nau. Egunaren eta momentuaren arabera aukeratu dut material bat ala bestea: batzuetan indar gabe sentitu, eta buztina hartzen dut, esaterako, eta besteetan, harria.

Margotu ere egiten duzu.

Galizian bizi izan nintzenean, margotu egin nuen eta nire margoen erakusketa ere jarri nuen. Baina ez nuen erantzunik jaso, eta hor geratu zen guztia. Orain, ostera, berriro ere margotzen ari naiz: baxera bat margotzen nabil. Denetik egiten dut, aldatu egiten dut teknika, bizi egin behar delako. Brontzezko eskultura txikiak gehien saltzen direnez, gehien hori lantzen dut.

Zerk inspiratzen zaitu?

Artistaren desgrazia beti inspiratuta egotea da. Lo, jan, eta guztia inspiratuta egiten duzu. Umetan irakasleak beti esaten zidan: “Orain ere ilargian zaude”. Emazteak orain gauza bera esaten dit. Ilargian bizi gara artistok, gure zoro haizearekin. Orain gutxi esan zidan batek: “Lan ezberdin asko, pobre seguru”. Baina ez dira konturatzen inspiratzeko bi era daudela: bat alproja eta mozokorra izanda, eta bestea ni bezala lanean ordu mordoan emanda, eta inspiratzeko beste bide batzuk bilatuta. Lutheriak bide berri hori erakutsi dit.

Obra ikusita, zure estiloa antzematen da?

Gauza berriak egiten saiatzen naiz beti, baina, oro har, bide beretik jarraitzeko tendentzia daukagu artistok. Alabantza da jendeak zure obra ezagutzea, baina artistaren bizi-tzan, benetako alabantza goizero jaiki eta zuk nahi duzun horretan lan egin ahal izatea da.

Elgoibarren bizi arren, galiziarra zara, ezta?

Nire gurasoak Allarizkoak dira, eta Elgoibarren bizi baziren ere, ni erditzera herrira bueltatu zen ama. Baina sei hilabete nituela bueltatu ginen Elgoibarrera. Hamalau urte nituela, nire ilusioa Galizian bizi izatea zen: zaila ikusten nuen, eta erronkak gustatzen zaizkidanez, probatzea erabaki nuen. Soldadutza ostean joan nintzen hara, eta hamabost urte inguru eman nituen han: bertan hasi nintzen eskultore. Oso ondo ari nintzen eskulturari, diru asko irabazten nenenbilen, eta Arantxa ezagutu nuen, emaztea, eta berriro ere Elgoibarrera bueltatu nintzen.

Morriña-rik bai?

Ez. Nire herrira lantzean behin bueltatzea gustatzen zait, gurasoak-eta ikusteko. Baina munduan barrena ibiltzeko gogoia daukat. Ez dut bizi osoa herri batean eman nahi. Hainbat herrialdetan denboraldiak ematea gustatuko litzaidake.



Bizi itxaropena gero eta handiagoa da, eta urte horiek ahalik eta ondoen bizitzeko erraztasunak jartzeko sortu zen Nagusien Kontseilua. Udaleko Ongizate Sailarekin elkarlanean, nagusien bizimoduari oztopoak kendu eta bizi kalitatea areagotzeko lanean dihardu.

ZU

JESUS ASTIGARRAGA

Debabarreneko Nagusien Kontseiluko kidea

“Nagusiekin zerikusia daukaten gaiak eta arazoak konpontzen saiatzen gara”

Noiz eta nola sortu zenuten Debabarreneko Nagusien Kontseilua?

Orain dela urte eta erdi inguru hasi ginen Nagusien Kontseilua sortzeko lanetan. Debegearen laguntza izan genuen, eta oraindik ere paper kontuekin asko laguntzen digute. Udaleko Ongizate Sailarekin ere harreman ona daukagu, eta gauza askotan laguntzen digute. Nagusiekin lan egiten duten beste hainbat eragilerekin jarduten dugu lanean: parkinsondunen elkarte, jubilatuen egoitza, eta beste hainbat elkartetako jendea gabilta.

Zein da Nagusien Kontseiluaren helburua?

Nagusien beharrak asetzera da, batez ere, gure elkartaren lana. Nagusiekin zerikusia daukaten gaiak eta arazoak konpontzen saiatzen gara, eta alor askotan egiten dugu lana: Mendaroko ospitalearen gaia landu dugu, irisgarritasun arazoak aztertu ditugu, eta beste hainbat lan ere egin ditugu.

Zein da Kontseiluaren funtzionamendua?

Hasieran, hilerok elkartzen ginen nagusiekin zerikusia zeukaten gaiak lantzeko. Orain, bi hilean behin edo egiten ditugu batzarrak. Arazoak aztertu, eta ondoren Foru Aldundira, Eusko Jaurlaritzara edo behar den lekura eramaten ditugu txostenak. Gauza asko lortu ditugu.

Mendaroko ospitaleari dagokionean, zer lan egin duzue?

Ohe faltagatik, jende asko Gipuzkoako beste ospitale batzuetara eramaten zuten, eta jende nagusiarentzat arazo handia da hori. Ospitaleko gerentarekin berba egin genuen, eta ospitalekoa nekazaritza-lur-saila zela esan zigun. Orduan, Mendaroko alkatearengana jo genuen, eta berehala kalifikatu zituen lurak. Ospitala handitzen ari dira, dagoeneko. Etxez etxeko ospitalizazioa martxan jartzeko ere lan handia egin genuen. Bestalde, Euskotreneko arduradunekin ere egon ginen, trenetan komunak jartzeko eskatuz. Hasieran ezetz esan ziguten, baina azkenean ipini dituzte!

Eskualdeko nagusiak, orduan, apur bat erosoago bizi dira zuei esker?

Ez dut esan nahi guregatik egin direnik hobekuntza horiek, seguruenik bestela ere egingo zituzten, baina guk apur bat bultzada ematen diegu, guretzako garrantzitsuak diren gaiak. Meritua ez da gurea.

Eskualdeko herri guztietan nahi duzue Kontseilua sortzea...

Eibarren sortu genuen lehenik Kontseilua, baina Debabarreneko eskualdera zabaldu nahi dugu. Deban badaukagu jendea, Sorluzen ere pertsona bat lanean hasteko prest dago, eta Elgoibarren Nagusilan elkarteko jendea sartu da orain Kontseiluan.

sartu dira elgoibartarrak

NI



MARI TERE IRAEGI

Nagusilan elkarteko kidea

“Gazteen eta nagusien arteko errespetua indartu egin behar da”

Zein izango da Nagusilanen funtzioa Nagusien Kontseiluan?

Aste honetan izan gara estreinako bileran, eta han esandakoaren arabera, guk bitartekari lana egingo dugu. Hau da, Elgoibarko nagusien ordezkariak izango gara Kontseiluan. Herrian dauden arazok guri helaraziko dizkigu jendeak, eta, ondoren, geuk eramango dugu gaia Kontseilura. Bertan aztertu, eta gainontzeko herrietan zer egin den ikusi eta arazoa konpontzen ahaleginduko gara. Bestalde, Debegesak antolatuta, Expoadintsu feria izango da irailean Eibarren, eta han ere egongo gara. Kontseiluak stand bat jarriko du jendeari informazioa emateko, eta guk ere txandak egingo ditugu.

Zein dira Elgoibarko nagusien beharrak handienak?

Nire ustez, edukazioa falta da. Kanean jendeak nahi duena egiten du, besteak errespetatu gabe, eta zaharrak baztertu egiten dituzte. Esate baterako, Plaza Handian nagusien inguruan futboleak jokatzen edo bizikletan ibiltzen dira gazteak, eta gurasoek ez diete ezer esaten. Norbaitek lurrera erori eta hil egin behar du arrisku horretaz konturatzeko? Gazteen eta nagusien arteko soka etenda dago, eta errespetu hori indartu egin behar da. Gu zapuztuta bizi izan ginen gaztetan, eta gaur egun, dena libre daukate gazteek.

Elgoibarren, nagusientzako zerbitzu eskaintza nahikoa dagoela iruditzen zaizu?

Bai, eskaintza zabala dago eta bizi-kalitate ona daukagu Elgoibarko nagusiok. Kultur eskaintza handia dago, nagusientzako ikastaroak egiten dira, eta Jubilatuen Egoitzak ekintza asko antolatzen ditu. Oro har, ondo bizi gara.

Nagusilan elkarteak zein funtzio betetzen ditu?

Nagusiak eta gaixoak zaintzen ditugu. Hasieran gutxi ginen, baina orain 22 lagun gaude, ia denak jubilatua. Batez ere, konpainia egiten diegu nagusiei, eta bakardadea oso triste da. San Lazaro egoitzan dauden gaixoek izugarri eskertzen dute konpainia, eta horrek satisfazio handia ematen digu. Hara joan, eta “hemen dator nire lagun mina”, esan zidan batek, eta sekulako ilusioa egin zidan.

San Lazaro egoitzan itxaron zerranda handia dago?

Ez dakit seguru, baina baietz diote. Norbait hiltzen denean, berehala sartzen da beste bat haren lekuan. Zaharrentzako egoitza berria behar da, baina badirudi berria egiteko proiektua martxan dagoela. Jendea gero eta urte gehiago bizi da, eta etorkizunerako garrantzitsua izango da.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: baren@elgoibarkoizarra.com.

Krisia? Putxeroa bete-betea dago, barren

Hauteskunde gauean, ezker abertzaleko kideok, II-SPen ahalduan moduan bozken zenbaketan parte hartu ahal izan genuen. Bertan, II-SPren 829 bozka zenbatu genituen. Gure harridurarako, ordea, Espainiako Barne Sailak 769 baino ez zizkigun onartzen. Esker-rrak akta guztiak jaso genituen.

Lehen momentuko harridura ikara eta haserre bilakatu zen ordea hurrengo egunean, Estatu espainiarrean II-SPren bozkekin pasatakoa agerian geratu zenean. Agian, nork daki, eta garrantzitsuena ez bada ere, Europarlamentari bat lortzera ailegatuko ginatkeen. Bistan da Espainian trantsiziorik ez dela oraindik burutu. Demokraziara ez behintzat. Hainbestetan ahotan hartzen duten horiek ere ixilik daude oraingoan. Ez dago eskandalurik, ez deklaraziorik, ez salaketa publikorik.

Arnaldo Otegi duela gutxi Iruñean esan bezala, herri honetako alderdi politikoek, alderdien legearen aurka dardela horrenbeste esan ordez, II-SPk erakutsitako konpromisoaren ehuneko hamarra erakutsi izan balute, aspaldi ez litzateke halakorik inguruotan. Baina nork nahi du hori? Non dira demokraziaren alde borrokatzen omen diren alderdi guztiak orain? Penaz ikusten dugu nola ez diren gai eskubide nazional eta sozialen alde lan egiteko, ezta *putxerazo cañi* honen aurka ahotso altxatzeko ere. Bozka zuriak, 2004an baino

125.000 gehiago. Baliogabeak, berriz, 50.000 gehiago. Atzerriko 50.000 bozka gehiago baliogabetuta. Bakoitza erretratututa ageri da. Errekurtsoak aurkeztuta daude. *Putxeroa* mahaigainean dago. Gonbidatuak ixilik.

Bukatzeko, gure eskerrik beroenak gudan konfiantza ipini duzuen guztioi. Agerian utzi dugu sistema kapitalista, botereari eusteko, zer nolako iruzurrak egiteko prest dagoen. Lotsagarria da, era berean, komunikabideen isiltasun erabatekoa. Iranen bakarrik ez! Guk ere gure bozkek non diren jakin nahi dugu!.

Hori guztia argitu dadin, zerbait egiteko prest bazaude, bat egin ezazu iruzurraren kontra hurrengo orrian sinatuz: www.egianahidugu.org.

Gora herrien arteko elkartasuna! Eskerrik asko!

Elgoibarko ezker abertzalea

Ikastolaren eguna

Ikastola Egunaren antolatzaileen izenean, eskerrak eman nahi dizkiegu pasa den larunbatean, ekainaren 13an, egun berezia eta arrakastatsua izan zedin lagundu zuten guztiei, hau da: Be-laustegi jatetxea, Euskadiko Kutxa, Goki erreformak, Beristain logistika-banaketa, Altzolako urak, Bankoa-Credit Agricole, Txariduna hotela, Gabi jate-txea, Lanbroa taberna, Txiriboga taberna, Iriondo taberna, Kutxa, Caixa Catalunya, Jai-Alai taberna, Alkorta bakailaoak, Dori urdaitegia-janaridenda,

Pelegrin, Ametsa taberna, Xagua taberna, Olaso taberna, Exclusivas Gorla, Idarraga, Patxi harategia, Nava inprimategia eta Markel Bergara. Eskerrik beroenak ere parte hartu zenuten guztioi.

Datorren urtean ere, festa berezi hau antolatzen laguntzeko eta elkar lanean aritzeko prest egongo zaretelakotan, agur bero bat.

Ikastola Egunaren antolatzaileak

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 · 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: baren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: baren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Asier Orbea, Oier Narbaiza, Edurne Burgaña PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZAILA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILAK Oihana Tarragual, Ibai Portu, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Anjel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegui, Sugar Etxaniz, Arkaitz Inureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.750 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Unai
Arrieta



Zuhaitz
Gurrutxaga

Elgoibarko Udalak eta herriko hainbat kultur taldek Emakumea eta kirola eguna antolatu zuten joan den zapa-tuan. Emakumea eta kirola uztartzeko helburuarekin hainbat ekitaldi izan ziren egunean zehar:

Emakumeen Birako 3. etapa, herriko Tecnifuelle eskubaloi taldearen eta Euskadiko selekzioaren arteko partida...

Aitortu behar dizut, Zuhaitz: interes berezia pizten didan gaia da emakumeak kirolean daukan jarduna. Tamalez, bizitzako beste arlo askotan bezalaxe, kirolean ere genero efektua nabari-nabaria delakoan nago.

“Emakumearentzat goi-mailako kirola ez da bizitza-aukera bat”

Ez nuke esango emakumeek kirolik egiten ez dutenik. Uste dut, ordea, kirolak ez dizkiela aukera berberak eskaintzen emakumezko eta gizonezkoiei. Emakumeentzat kirola jarduera ludikoa izan ohi da (balio handia duen jarduera iruditzen zait, sustatu beharko litzatekeena). Gaztaroan egungo osasun ereduak bultzatuta-edo jarduten dute kirolean. Urteak aurrera egin ahala, ordea, jarduera beraren erakargarritasun ezak, ikasketek, lanaren inguruko erantzunkizunek edota familiak berak bultzatuta kirola uzten dute emakume askok. Gizonezkoen kirola lehiaketari eta etorkizuneko balizko profesionaltasunari zuzendurik dagoen bitartean, emakumeek goi-mailako kirolera jauzia egiteko zailtasun handiak izaten dituzte.

Emakumezkoen goi-mailako kirolak gizonezkoenaren aldean ez du komunikabideen jarraipenik, ez eta aldeko apustu ekonomiko irmorik ere. Kostu handiko bizitza izaten da emakume kirolari profesionalarena, sakrifizio handiko eta errekonozimendu eskaseko lana. Onarpen gutxi klub, instituzio, babesle eta hurbilekoengandik. Amatasunak ere ez du sistema horretan inolako aitorzarik.

Nire ustetan, egun, zoritxarrez, emakumearentzat goi-mailako kirola ez da bizitza-aukera bat, ez da bizibide bat. Zer iruditzen zaizu, Zuhaitz?

Ez da aukera erraza emakumearentzat goi-mailako kirola, hark eskatzen dituen exigentzia gogorak ez baitaude, gehienetan, merezi duten bezala sariturik. Kirol profesionala negozio bihurtu zen aspaldi, eta profesionaltasun hori bideratzen duten babesle pribatuek errentagarritasuna bilatzen dute beraien laguntza ekonomikoekin. Argi dago, gaur egun, komunikabideetan agertzen ez den ezerk ez duela publizitaterik eskaintzen, eta, beraz, telebistan, irradian edo Interneten agertzea da soilik marka edo ikur batentzat errentagarria.

Zenbat emakumezko kirol saio ikus daitezke telebistan? Aukeran, oso gutxi. Nire ustez, komunikabide publikoek, guztionak diren horiek, eman behar liokete bultzakada handi bat nesken kirolari. Ikuslearentzat erakargarri bihurtu, egunerokotasunean barneratu, ikusgarri egin... marka komertzial bihurtu. Orduan eskatu ahal izango genieke babesle pribatuei berea eta soilik berea den dirua, negozio bideragarria litzatekeen emakumezkoen kirolean inbertitu dezaten.

“Kirola modu ludikoan egiteko aukerak lehenetasuna izan behar du”

Hala ere esan behar da gaur egun portzentaje oso txikia dela kirolek bizi den gizon zein emakumeena, kirola praktikatzeko duten guztien artean. Hau da, ez dela aukera erreal bat kirol munduan lehen pausoak ematen dituenarentzat profesional izatera iristea. Beraz, lehenagoko lana dela deritzot modu ludikoan kirola egiteko aukerak zabaltzea eta bultzatzea, lehen zuek aipatu bezala, nerabezarotik gerora kirol praktika alboratu ohi duten emakumeontzat.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Espainiako zentral nuklearrik zaharrena itxiko duen ala ez erabaki behar du Gobernuak.

Zure ustez Garoña itxi beharko lukete?



Iñaki Saez
53 urte, CNC langilea

Bai. Nire ustez, arriskutsua izan da beti zentral nuklearren gaia, eta segurtasun neurriak nola hartzen diren ez dakit. Garoñak arazoak eman izan ditu, eta ez dit inolako konfiantzarik ematen. Gobernuak itxi egin beharko luke zentrala, eta bestela guk geuk.



Olvido Deza
44 urte, etxekoandrea

Bai. Niri ez zait batere gustatzen gai hori, eta azkenaldian entzuten diren gauzekin, kezkatzeko modukoa dela iruditzen zait. Energia berriztagarriak gehiago erabili beharko lirateke, kutsatzen ez dutenak eta osasunarentzat kaltegarriak ez direnak.



Gregorio Fernandez
72 urte, jubilatua

Bai, dudarik gabe. Nik berehalakoan itxiko nuke, oraintxe bertan. Askotan egon da itxita, eta horrek asko esan nahi du. Arazo asko eman ditu azkenaldian, eta hori oso arriskutsua da. Bateriekin bada ere lortuko dugu energia, baina zentrala itxi egin behar da.



Justo Arriola
42 urte, baserritarra

Bai, jakina! Inolako dudarik gabe, Garoñako zentral nuklearra itxi egin behar da. Zergatik? Energia nuklearra zikina eta garestia delako, eta ez daukagulako energia horren beharrik. Beste energia mota batzuk bilatu behar direla iruditzen zait.

Tel.: 943 741 011



LARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

- IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ
- SENTSIBILIZAZIO ETA BIDE BERREZIKETAKO IKASTAROAK

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!

GIDA KOMERTZIALA
2009-2010

Gida komertziala prestatzen ari gara, zure negozioaren telefonoa agertzea nahi baduzu, deitu zenbaki honetara:

943 743 704

edo helbide honetara idatzi:
barren.publi@elgoibarkoizarra.com

**Obrei buruzko informazioa ematen duten kartel handiak lekuz kanpo daude:**

“Herriko hainbat lekutan obrei buruzko kartel handiak daude: Usuako parkean, Kultur Etxe inguruan, Ermuaranbide kalean, Pedro Muguruzan, eta beste hainbat lekutan ikusi ditu kartelok. Informazioa ematea ondo dago, eta garrantzitsua da. Baina nire ustez, obrak amaitu ondoren kartel erraldoi horiek kendu egin behar dira”. ⇒

**Sigmako aparkalekuan jende askok gaizki lagatzen du autoa:**

“Sigmako aparkalekuan, eguenetako merkadi-lloa egiten den lekuan, jende askok gaizki aparkatzen du. Erdi-erdian lagatzen du autoa, eta gaizki aparkatutako autoekin ilara luzea sortzen da. Horrek traba handia egiten du, eta ondo aparkatu nahi dugunontzat zailtasunak sortzen dira. Zergatik ez dira udaltzainak ingurune horretan ibiltzen? Nire ustez, isunak jarri beharko litzukete”. ←

**Herritar batek Udala txalotu nahi du, Madalako gunean egindako lanagatik:**

“Zorionak Elgoibarko udalari! Oso polita geratu da Madalako parkea eta ingurune guztia. Dena dela, eskaera pare bat egingo nitzuke: batetik, Madalako parkearen kulunpioetako torlojuak dagoeneko hasi dira askatzen, eta berriz begiratzeko eskatuko nuke, denak hondatu baino lehen, eta, bestetik, parke gehiago eskatuko nitzuke. Mila esker”.




Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12

ESKERTZA

LUIS BARRENETXEA GARATE

*Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.*

2009ko ekainaren 10ean hil zen, 65 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Gurean Bai Pintxo Lehiaketa antolatu du Elgoibarko Izarrak ekainaren 26 eta 27rako

Euro baten truke pintxoak probatu eta botoa emateko aukera egongo da

Pintxo lehiaketa izango da datorren asteburuan, Elgoibarko Izarrako Gurean Bai Ostalaritza egitasmoak Udalaren laguntzaz antolatuta. Elgoibarko hamar establezimenduk hartuko dute parte lehiaketan. Bakoitzak bere pintxo prestatuko du, eta euro baten truke dastatu ahal izango dituzte herritarrek, lehiaketak irauten duen bitartean. Hilaren 26an egingo dute lehenik, 19:00etatik 22:00etara, eta hurrengo egunean, 11:30etik 14:30era.

Sariak eta epaimahaia

Antolatzaileek bi sari banatuko dituzte. Pintxo onenaren saria bost lagunez osatutako epaimahaia emango du. Horretarako, ondorengoak izango dituzte kontuan: pintxoaren itxura eta aurkezpena, zaporea eta testura, eta originaltasuna.



Bigarren saria jendeak emango du. Euro baten truke pintxoak probatzen duten herritarrek taberna horretako pintxoak baloratzeko aukera izango dute. Horretarako, ostalariek balorazio-txartel bat banatuko diete herritarrei, eta pintxo

guztien balorazioak aztertu ondoren, puntu gehien lortu dituenak jasoko du saria. Balorazioa ematen dutenen artean, bi lagunentzako dastatze-menua zozketatuko dute antolatzaileek. Sari-banaketa ekainaren 30ean izango da.

Gurutze Gorrikoak Kataluniako sari nagusian izan dira



Elgoibarko Gurutze Gorriko Jon Mekolalde, Nere de la Cruz eta Alberto Cardaba Kataluniako sari nagusian izan ziren asteburuan. Osasun zerbitzua eskaintzera joan ziren Montmeloko zirkuitura, eta beste herrialdeetan lana egiten duten ikusteko balio izan die. Txapelketan, motorren soinuak gertutik entzuteko aukera izan zuten, eta punta-puntako moto-gidarien aldamenean egin zuten lana. Besteak beste, Valentino Rossi, izan zuten ondoan.

Lepazuri bat azaldu da hilda bide bazterrean

Pilar Ikastetxearen eta Txankakua zubiaren arteko errepide zatian aurkitu du lepezuria hilda herritar batek, auto batek harrapatuta, itxura guztien arabera. Basoan bizi ohi da lepezuria, baserrietatik gertu, eta baserriarren artean nahiko ospe txarra dauka. Ez da oso ohi-koa herritik hain gertu ikustea. Dena dela, ekain-abuztu bitartean, arreske dagoenean, berezko duen zuhurtzia galtzen du, eta egunez ere ikusi daiteke. Horixe izan daiteke hilda agertu izanaren arrazoia.



Izena **Alfontso Astaburuaga**



Azken hiru urteak minbiziak jota pasatu ditu Alfontso Astaburuaga apaizak, eta joan zen domekan hil zen, 75 urte zituela. Jaiotzez arrasatearra zen Alfontso. Lehenengo apaiz ikasketak Saturrarango seminarioan egin zituen, eta 1953an Donostiako seminarioan sartu zen. 1959an apaiztu zen, eta Eskoriatzako Mendiola auzoan egon zen apaiz, hamaika urtez. 1970ean iritsi zen Elgoibarrera, eta apaiz laguntzaile jardun zuen San Bartolome parrokian. Azken hamaika urteotan Altolako parrokoa izan da. Hileta elizkizuna Patxi Azpitarte Gipuzkoako bikario nagusiak eman zuen, eta 30 apaiz izan ziren mezatan.

Berbia **Lapurreta**

Astigarraga Gys Sport dendan lapurretan egin dute berriro, eta hiru hilabetetan jasan duten bigarren lapurreta izan da. Orain, inguruko estolda bateko tapa erabili dute lapurrek, denda kanpoko kristala apurtu eta barrura sartzeko. Ertzainek domeka goizean jaso zuten abisua. Ustezko lapurrek hainbat objektu ostu zituzten dendan eta bi maletatan gorde zituzten, alde batetik bestera eraman ahal izateko. Ertzainek 18 urteko bi gizonetako atxilotu zituen, maletak soinean zituztela.

Irudia **Ohorezko matrikulak**

Elgoibarko BH Institutuan amaitu da ikasturtea. Aurten zortzi ikaslek eskuratu dute ohorezko matrikula: ezkerretik eskuinera, Maite Moreno, Mirari Egaña, Miguel Borinaga, Lorea Riaño, Ane Osoro, Irati Manzisidor eta Andrea Garcia. Atzean: Aritz Manzisidor. Ikasle horiek urtean zehar eginiko lanak fruitua eman du.



IMHko ikastaroak %53 hazi dira krisiaren eraginez

Krisia dela eta, prestakuntza iraunkorreko ikastaroak %53 hazi dira urtariletik maiatzera IMHn. 2.047 ordu ematetik 3.140 ordu ematera pasa dira, eta itxaron zereendak ere oso handiak dira. Ikastetxeko arduradunen esanetan, EAEko ikastetxeen artean prestakuntza iraunkorreko eskaintza zabalena dauka IMHK.

Bestalde, IMH sarien banaketa egingo dute gaur, 12:30ean. Aurten enpresa-kultura eta lanaren balioen inplikazioa sarituko dute.

Gure Bide eta Zubi Ondo elkarten urrezko ezteiak

Gure Bide eta Zubi Ondo elkarteek 50 urte egin dituzte, eta bihar ospatuko dituzte urrezko ezteiak. Goizean bazkideei oparitxo bat banatuko diete, eta ondoren elizkizun zibiko-erlijiosoa izango dute. 11:30ean bazkideen argazkia aterako dute, ondoren Mauxitxa txarangaren saioa izango da, eta azkenik, bazkaria egingo dute elkartetan.

1947koen eta 1949koen kinto ospakizunak

1947an jaiotako elgoibartarrek bazkaria egingo dute Sigma jate-txean datorren ekainaren 27an. Aurretik, argazkia aterako dute bolatoki zaharrean. Interesatuak 60 euro sartu behar dituzte Euskadiko Kutxako 3035 0007 24 0071063126 kontuan, ekainaren 22a baino lehen. Bestalde, 1949an jaiotakoek Belaustegin egingo dute bazkaria, hilaren 27an. 13:00etan argazkia aterako dute eliza aurrean, eta jatetxerako autobusa 14:00etan irtengo da Txankakuako zubitik. Interesatuak 70 euro ordaindu beharko dituzte La Caixako 2100 4168 77 2100091490 kontu korrante zenbakian, ekainaren 23a baino lehen.

Gure berbak

Hiztegixa (9)

Gaurko zutabian, euskera gipuzera hurreratzen gaittuen ezaugarri lexiko gehixago jasotzen segittuko dot.

Ezaugarrietako bat da adberbixue-tan Eibar eta Markiña aldeko azken -N hori ez dogula erabiltzen. Ez dittugu erabiltzen ez *ZELAN, ez *HOLAN, ez eta *HOLANTXE bezelakorik ere. Hórren orde-z, ZELA (eta NOLA) erabiltzen dittugu, eta HOLA eta HOLAXE bezelakuak.

Postposizuetan, *BARIK* ezaguna debe Eibartik hasi eta Debagoiena nahiz Mendebal aldera, baiña guk ez darabil-gu: guk *BE* eta *BA(G)E* erabiltzen dittu-gu. Hona adibide batzuk:

- ♦ *Asko kantsau be egitten debe gaziak Elgoibarko mendi-bueltia.*
- ♦ *Hamasei hillebete etxera etorri bage egoten giñan soldautzan.*
- ♦ *Sekula ikusi bagekua zuan halako zir-kua.*

BAGE aldaera hori ixa galduan dauala esan leike, adiñeko jendiarri baka-rrik entzuten jako eta.

Postposizuekin hasi geranez, beste batzuk aittatuko dittugu. Konparaziozko sintagmak osatzeko, *LEGEZ* eta *LAKO* bezelakuak erabiltzen dittue Eibar aldian eta Mendebaldian. Eibarren, egixa esan, galtzen ari dirala esan leike, hiztun zaharrek bakarrik erabiltzen ei dittue eta.

Elgoibarren ez da halakorik erabil-tzen konparaziuak egiteko. Hórren ba-liokidiak dittugu *BEZELA* (*BEZELAKO*) eta *MODUAN* (*MODUKO*).

- ♦ *Eta kalian zihar fusil bana hartuta, orden publikokuak balira bezela ibilli ziran.*
- ♦ *Zuria bezelako autua erosi dot.*
- ♦ *Txahala moduan jausi nitzan lurrera, eman zian zartadiakin.*

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1991

Milagros Oiarzabalek ekarri du aste honetako erretratu zaharra. Baltasar elkar-tean aterata dago, eta bertan, Pikupe koadrilakoak azaltzen dira. Lagun artean afari eta bazkariak egiteko ohitura zeukaten gizon horiek, eta askotan elkartzen zi-ren Baltasar pilotazale elkartean. Gogora ditzagun elgoibartar horien izenak:

Goian, ezkerretik eskumara: Ramon Uriguen "Etxegiña" (†), Boni Ipiña, Inazio Betelu, Jose Mari Igartua (†), Santi Urain (†).

Behean, eserita: Pedro Mari Esnaola, Guillermo Regil, Imanol Conde, Luis Bil-bao (†) eta Luis Larrañaga.



ESKERTZA

FELICIANO GARATE ELORZA

2009ko ekainaren 3an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Maiatzean...

JAIOTAKOAK



Ibai Zabaleta Badiola
Maiatzak 2 Jose Maria
eta Maria Itziar



Markel Inbaxusti Lasuen
Maiatzak 3
Gorka eta Nerea



Julen Rey Boo
Maiatzak 6
Oskar eta Maria del Mar



Joane Unamuno Ramos
Maiatzak 9
Eneko eta Aintzane



Peru Lasuen Asla
Maiatzak 12
Eneko eta Maider



Camila Martinez Pesoa
Maiatzak 14
Waldir eta Rivana



Asier Mejuto Garcia
Maiatzak 17
Roberto eta Monica



Leire Santamaria Cid
Maiatzak 18
Julian eta Teresa



Adur Oria Sanchez
Maiatzak 18
Aitor eta Olatz



Ane Alberdi Barrutia
Maiatzak 18
Oscar eta Iraia



Elaia Etxaniz Iureta
Maiatzak 19
Asier eta Nagore



Ibai Andres Migales
Maiatzak 20
Alexander eta Alicia




Sabin Galdona Palomino
Maiatzak 21
Koldo eta Silvia



Iago Fernandez Juaristi
Maiatzak 26
Emilio eta Miren Lorea



Luken Zabaleta Etxeberria. Apirilak 27
Aitor eta Miriam




Nahia Leon Bautista
Apirilak 15
Haritz eta Begoña




Enara Kortabitarte
Osoro Maiatzak 1
Luis eta Nerea



Hoorab Imran
Maiatzak 14
Imran eta Hina



Nahia Alvarez Avila
Maiatzak 16
Francisco Angel eta Flor



Julen Lahoz Iribarren
Maiatzak 22
Carlos Javier eta Gema

EZKONDUTAKOAK

- Juan Ignacio Agirre eta Eva Maria Medina Camacho maiatzak 4
- Imanol Garaizabal eta Miren Mugika maiatzak 16
- Jose Luis Calle eta Maria Adriana Alves maiatzak 23
- Aitor Rodriguez eta Alejandra-Janeth Gomez maiatzak 23
- Ruben Figueiredo eta Beivi Melgar maiatzak 23

HILDAKOAK

- Ignacio Garate Goiarzun • **88 urte** • (Maiatzak 2)
- Arantza Larrea Usandizaga • **69 urte** • (Maiatzak 14)
- Floren Etxeberria Guenaga • **79 urte** • (Maiatzak 15)
- Maria Maiztegi Agirregomezkorta • **83 urte** • (Maiatzak 25)

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Eriete
zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hila beteko lehenengo barixakurako ekarri behar duzu erretratua BARRENEko erredakziora edo barren@elgoibarkoizarra.com helbidera bidali. Ekainetik aurrera, jaiotakoen argazkiak jartzeagatik **2 euro** kobratuko ditugu.



1 AMETSA kafetegia
Ametsa

Ingaiak: Frie-grasa ondoak,
sagar-kroketa eta ogi txangurra



7 LOJANTZI kafetegia
Tenpura

Ingaiak: Kalabazina azerarrine tipula
piperra eta ingururri-saltza



2 EL GAUTXO taberna
Gautxitoa

Ingaiak: Bakalarra, tomate zikzak,
saxarapin-olosa eta berakatz-ogia



8 MADIGAN'S inah pub
Tsunami

Ingaiak: Piper berdea hiragiharra, tipula erab-egusia,
hostonera eta ahate-urvase saltza



3 GABI jatebrea
Ikurriña

Ingaiak: Bakalarra, piper gorria eta piper berdea



9 SALENTO taberna
Kapritxo

Ingaiak: Pipera, mozarella tomate txakurra,
urdatzapikoa eta trufa-krewa



4 ITURRI taberna
Piper sorpresa

Ingaiak: Piper berdea, arrautza eta patata



10 PAULANER TXARRIDUNA
jatebrea
Tinbala

Ingaiak: Kalabazina, bakalarra,
patata eta tipula karameleatuta



5 KING-KONG kafetegia
Lehoi begetala

Ingaiak: Loxura zezina, erokak, bitaxobal gazta,
gazta parmesano eta mahus-pusak



6 LANBROA kafetegia
Ortuxo

Ingaiak: Kalabazina, tipula, piper berdea eta hiragiharra

GUREAN BAI
I.Pintxo Lehiaketa
Ekainak 26 eta 27

Ostirala 19:00 - 22:00 / Larunbata 11:30 - 14:30

Pintxo goxoak
euro baten truke!

Antolatzaileak:

Laguntzaileak:



Euzkara eta Merkataritza
sailak



Kirol Udalekuetan 180 umek parte hartuko dute

Hilaren 29tik aurrera jardungo dute zortzi monitorerekin

Ekainaren 29an hasiko dira Kirol Udalekuak. 6tik 12 urtera arteko 180 haurrek eman dute izena. Eurekin zortzi monitoren jardungo dute egunero, Mintxetan eta Olaizaga kiroldegian, asteleheneetik barixakura, 9:30etik 12.30era.

Ondoko argazkian, Udalekuetako monitorea ageri dira: Olatz Castro, Unai Etxeberria, Asier Arregi, Koldo Mujika, David Camara eta Gorka Sastre. Irudian, Asier Larrea eta David Rodriguez falta dira.



Minondo eta Pinillari eman dizkiete Haundiren sariak

Asteburuan banatu zituzten Haundiko jokalarien artean aurtengo sariak. Gol gehien sartzeagatik, Jon Minondo Txiki-ri saria eman zioten (goiko argazkian). Jokalaririk erregularrena izateagatik, berriz, Ander Pinilla Perez jokalaria eman diote Idarraga saria.



Kalteak Mintxetan

Domekan hasi zen Mintxetako igerilekuen denboraldia, eta egun horretan bertan aldageletan kalte nabarmenak eragin zituen ume eta gazte talde batek, Kirol Patronatuaren arabera. Erakundeak honako agiria kaleratu du: “Udal Patronatuak ez du onartuko horrelako jarrerarik, eta hilabeterako sarrera debekatu die kalte horiek egin zituztenei. Aurrerantzean horrelakorik gertatuz gero, zigor bera ezarriko zaie instalazioetako arauak eta pertsonak errespetatzen ez dituztenei”.

ESKERTZA

MARIA MAIZTEGI AGIRREGOMEZKORTA

“Maritxu Upaitza”

*Zu izan zarena oroimenean
zuk erakutsitakoa gogoan
beti izango zaitugu bihotzean.*



2009ko maiatzaren 24ean hil zen, 83 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Kirola berdintasunean

Emakumeak eta kirola uztartzeko hainbat ekitaldi izan ziren hilaren 6an

Bero sargoriak 102 txirrindularien lana zaildu zuen zapatuan, Elgoibarren hasi eta amaitu-tako Emakumeen Biran. Galesko Nicole Cookek sprintean irabazi zion Alemaniako Judith Arndti Mintxetako helmugan.

Emakumea eta Kirola eguneko ekitaldi nagusia izan zen Emakumeen Bira. Andre-gizonen arteko berdintasun plana onartu dutela eta, herriko hainbat eragilek egun berezia antolatu zuten.

Horrekin batera, emakumezkoen eskubaloji partida ere izan zen zapatuan. Technifuelle taldeak Euskadiko jubenilen selekzioari irabazi zion (28-18).

Bestelakorik ere izan zen egun berezian: LHko ikasleek marrazki lehiaketa egin zuten. Gaztelekuko eta Kuadrillategiko gazteek, gainera, murala margotu zuten Mintxetako horman.



Domekak makina bat kirol egiteko aukera eman zien elgoibartarrei



Urritasunen bat dutenen lekuan jartzeko aukera izan zuten elgoibartarrek domekan, kirol egokitueta jar-duteko aukera izan zuten eta. Horrez gain, urritasuna duten 80 kirolarik baino gehiagok honakoa erakutsi zuten: saskibaloia eta pilota, gurpildun aulkian; itsuak goalballean eta xakean; txirrindularitza egokitua eta urpeko jarduerak. Bestalde, *Kirolako ateak zabalik* eguna zela eta, hainbat kirol egiteko aukera izan zen domekan.

Dominak banatu dituzte Finalista Egunean

Urtean zehar igotako mendien ordainetan, Morkaiko mendizale elkartearen errekonozimendua jaso zuten hainbat mendizalek Finalista Egunean, domekan. Idotorbe-San Pedron egin zen domina banaketaren aurreko Rolleski igoera izan zen aurtengo berrikuntza nagusia. Zazpi lagunek parte hartu zuten proba gogorrean.



Debabarreneko BTT martxa egingo dute ekainaren 28an

Debabarreneko BTT Zentroa sustatzeko helburuarekin eskualdeko BTT martxa antolatu dute ekainaren 28rako. Irteera 9:00etan hasiko da Elgoibarko Mintxeta Kirolgunean dagoen BTT Zentroaren harrera puntuan, eta bi ibilbide egin ahal izango dira: motzak 25 kilometro ditu eta luzea 45 kilometrokoa da. Izena emateko bi aukera daude: ekainaren 22ra arte www.debabarrenaturismo.com helbidean sartuta, ala martxaren egunean bertan, 8:00etatik 8:45era. Federatuek 12 euro ordaindu beharko dituzte parte hartzeko, eta federatu gabeek 15 euro. Informazio gehiago, aurrez aipatutako web atarian edo 943 820 110 telefonoan.

Lagunak Pilota Txapelketa amaitu dute



Joan den barixakuan pilotako Lagunak Pilota Txapelketako finalak jokatu zituzten benjamin, alebin eta infantil mailetako pilotariek. Benjaminen mailan Larreategik 18-16 emaitzarekin garaitu zuen Beristain. Alebinen lehen urtean, Beraza 8-18 emaitzarekin gailendu zitzaion Odriari, eta bigarren urtean Arakistainek 18-12 emaitzarekin irabazi zion Idigorasi. Amaitzeko, infantiletan Gurrutxagak 9-18 emaitzarekin garaitu zuen Calvo.

Idotorbe-San Pedrorra saltaka igotzeko lasterketa antolatu dute estreinakoz

Datorren asteburuan, hilaren 27an eta 28an Idotorbe-San Pedro auzoko jaiak ospatuko dituzte, eta lasterketa antolatu dute estreinakoz. Igoera domekan egingo dute, 12:00etan, Santa Klaran hasita. Egin beharreko ibilbidea 3,8 kilometrokoa izango da eta horretarako gehienez 60 minutu beharko dituztela aurrikusi dute antolatzaileek. Parte hartzeko ez da ezer ordaindu behar, eta lehenengo hiru sailkatuek eta lehen emakumeak txapel eta garaikur bana eskuratuko dituzte.

Udako tenis ikastaroa antolatu dute 16 urtetik gorakoentzat

Elgoibarko 40-15 tenis elkarteak udako tenis ikastaroa antolatu du 16 urtetik gorakoentzat. Hiru taldetan banatuko dituzte parte-hartzaileak. A taldekoak uztailaren 2an hasiko dira, eta astelehen eta eguaztenetan ariko dira, 19:00etatik 21:00etara. B taldekoak uztailaren 1ean hasi eta martitzen eta eguenetan, ariko dira 19:00etatik 21:00etara. D taldekoak hilaren 3an hasiko dira eta barixakuetan ariko dira, 19:00etatik 21:00etara. Izena emateko bi telefono daude: 637 990 159 edo 696 577 872 zenbakiak.

Aire libreko zinea datorren barixakuan hasiko da

Emanaldi guztiak 22:30ean izango dira, Plaza Handian

Uda hastearekin batera ekingo zaio aurten ere aire libreko zineari Elgoibarren. Udaleko Kultura Sailak antolatutako emanaldiak 22:30ean izango dira, Plaza Handian. Lehenengo emanaldia datorren barixakuan izango da, ekainaren 26an, eta azkena abuztuaren 1ean. Kolore eta gustu guztietarako filmeak ikusi ahal izango dira plazan.



<p>EKAINA</p> <p>26 BARIXAKUA <i>X-Men Lobezero</i></p> <p>27 ZAPATUA <i>Las Crónicas de Narnia y el príncipe Caspian</i></p> <p>UZTAILA</p> <p>3 BARIXAKUA <i>La Niebla</i></p>	<p>4 ZAPATUA <i>Hacia rutas salvajes</i></p> <p>10 BARIXAKUA <i>Las chicas de la lencería</i></p> <p>11 ZAPATUA <i>Batman, el caballero oscuro</i></p> <p>17 BARIXAKUA <i>Los seis signos de la luz</i></p> <p>18 ZAPATUA <i>Sukalde kontuak</i></p> <p>25 ZAPATUA <i>Leones por corderos</i></p>	<p>26 DOMEKA <i>Madagascar 2</i></p> <p>30 EGUENA <i>El hijo del mal</i></p> <p>31 BARIXAKUA <i>Monstruoso</i></p> <p>ABUZTUA</p> <p>1 ZAPATUA <i>La momia, la tumba del emperador Dragon</i></p>
---	---	--



Urtero bezala San Juan bezperan piztuko dute sua Altzolako ibai ertzean



Datorren martitzenean, hilaren 23an, San Juan bezpera ospatuko dute Euskal Herri osoan, eta Altzolakoez prest dute egitaraua. Martitzenean San Juan arbola jarriko dute, eta hilaren 25era arte, San Juan Txiki Egunera arte, iraungo dute ospakizunek.

Jaietako batzordekoek adierazi dutenez, auzokoen arteko elkartasuna sendotzeko asmoz urtero eusten diote jaiari. Inguruko auzo eta herrietako bizilagunei jaietan parte hartzeko gonbitea egin diete.

San Juan Jaietako egitarau osoa agendan irakurri daiteke.

'Fabulas' ipuin kontaketa joko dute 60 akordeoilarik

Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolaren 25. urteurrenako ekitaldiekin jarraituz, *Fabulas* ipuin kontaketa antolatu dute domekarako. Emanaldia Herriko Antzokian egingo dute, 12:30ean.

Lau musika eskolek hartuko dute parte emanaldian, Elgoibar-koak, eta Nafarroatik etorriko diren hiruk: Eguesibarko eskolak, Garesko musika eskolak eta Barañaingo Luis Morondo eskolak. Guztira 60 musikaririk joko dute.

Akordeoi orkestrarako konposaturiko ipuin musikala da *Fabulas*. Kontalari batek baso imaginario batean gertatzen diren istorioak kontatuko ditu, musika pasadizoak eta pertsonaiak deskribatuko dituen bitartean.

Helburua musika momentuak sortzea da akordeoien baliabideak erabiliz, eta, aldi berean, erreminta pedagogikoa izatea.

'Zinema musikala' ikuskizuna eskainiko du gaur Biraka dantza taldeak

Emanaldian 30 dantzarik hartuko dute parte



Gaur 22:15ean Herriko Antzokian Biraka dantza taldearen *Zinema musikala* emanaldia ikusi ahal izango da. Dantza taldearen produkzio berrian 30 dantzari arituko dira ohol-tza gainean.

Josu Mujika elgoibartarraren koreografia berriak film baten grabazioa hartu du abiapuntutzat. Hilketa baten inguruko istorioa kontatzen du. Zinemari omenaldia egin nahi izan dio Mujikak, eta emanaldiko abesti guztiak filmetako soinu bandak dira.

Sarrerak, salgai

Hainbat dantza estilo landuko dituzte dantzariak ordu eta laurden inguru iraungo duen ikuskizunean. Sarrerak dagoeneko salgai daude Pitxintxu dendan, bost euroren truke.

Giro bikaina Sanmigeldarren Egunean



Joan den asteburuan Sanmigeldarren Eguna ospatu zuten. Urteroko mezaren ondoren auzotarren arteko pilota partidak jokatzekoak ziren, baina, frontoian zegoen hezetasuna zela-eta, norgehiagoka bertan behera laga zuten. Trikitilariak ere hain izan ziren giroa alaitzen, eta txorizoa eta salda janaz tripa betetzen egon ziren. Gero, eguneko ospakizunekin amaitzeko, bazkaria egin zuten.

Barnetegietan euskara ikasteko Udalaren laguntza

Barnetegian euskara ikasteak gastua dakarrela ikusita, Elgoibarko Udaleko Euskara Sailak diru-laguntza ematen du. Barnetegiko egonaldien gastua 600 euro baino gutxiagokoa den kasuetan, Udalak kostuaren %40 ordainduko du.

Gastua 600 eurotik gorakoa denean, Euskara Sailak erabakiko du zer nolako laguntza eman. Baina sekula ez da izango kostu osoaren herena baino handiagoa.

Informazio gehiagorako Udaleko Euskara Zerbitzura jo daiteke, edo telefonoz 943 744 366 zenbakira deitu.

Eguren taldearen dantzaldiak hasi dituzte

Urteroko ohitura den bezala, Eguren taldearekin dantzaldiak eginen hasi dira Plaza Handian. Lehenengo saioa hilaren 14an egin zuten, eta hurrengoa domeka honetan izango da. Hitzordua 19:00etarako egin dute. Hirugarren saioa, eta azken-a, hilaren 28an egingo dute, leku eta ordu berean.

'Jara' liburuak beste sari bat lortu du

Jasone Osoro elgoibartarraren *Jara* liburuak arrakasta duela gauza jakina da dagoeneko. Horren erakusgarri dira orain arte lortutako sariak. Orain, beste sari bat jaso du: Juul saria. Nafarroako Ikastoletako ikasleek euren gustuko liburuak eta ilustratzaileak aukeratzeko dituzte, eta edizio honetan berriro saritu dute *Jara*. D mailan - 10-12 urte- *Jara* bigarren sailkatu da, eta E mailan -12-16 urte- *Jara Bartzelonan* liburuak bigarren saria lortu du.



LANA

ESKAERA

- Neska gaztea abuztuan lan egiteko prest. Edozertan. ☎ **606 169 667**
- Emakumea euskalduna eskaintzen da pertsona nagusiak, gaixoak eta ezinduak zaintzeko. Eskarmentua du. ☎ **615 762 742**
- Neska gaztea, lanerako prest. Haurrak edo nagusiak zaintzeko eta etxeak, portalak edo tabernak garbitzeko lanetarako. ☎ **648 603 029**
- Neska gaztea, lanerako prest. Haurrak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo ontziak garbitzeko. ☎ **657 142 376**
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Arratsaldez ahal izanez gero. ☎ **943 743 251**
- Emakumea, lanerako prest. Pertsona nagusiak zaintzeko prest eta tabernak edo lokalak garbitzeko prest. ☎ **671 476 869**
- Neska euskalduna etxeko lana egiteko, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Jai egunetan ere bai. ☎ **676 876 408**
- Emakumea zerbitzari lanetarako, haurrak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **617 056 828**
- Ingeles klaseak ematen dira ekainean eta uztailean, goizez. ☎ **679 113 446**
- Emakumea, nagusiak edo haurrak zaintzeko prest edo garbiketa lanak egiteko prest. Arratsaldez edo gauz. Geriatria kurtsuarekin. ☎ **646 235 195 / 943 531 903**

- Klase partikularrak ematen dira uztailean goizez. LH eta DBH. ☎ **688 664 727**
- Emakumea, nagusiak zaintzen interna, externa, orduka edo gauz lan egiteko eskaintzen da ☎ **699 813 826**
- 17 urteko neska euskaldun arduratsua udan goizez edo arratsaldez lan egiteko prest, umeak zaintzen, eskolarako errefortzua barne edo etxeko lanetan aritzeko. ☎ **608 686 814 / 943 741 674**

ESKAINZA

- Udako hilabeteetako finantza-matematikak ematen dituen irakasle bat behar da. ☎ **650 829 246**
- Zerbitzari bat behar dute orain ireki behar duten jatetxe batetarako. ☎ **679 155 980**
- Elgoibarko Udalak obren lantalerako hamar langile kontratatuko ditu. Eskabideak aurkezteko epea ekainaren 25era arte. ☎ **943 471 050**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA

- 3 logelako etxebizitza bat hartuko nuke errentan Elgoibaren. ☎ **618 163 061**
- Etxebizitza alokatzen da Culleran (Valentzia). Uztaila eta abuztua. Hondartzatik gertu. ☎ **943 743 510**

- Apartamentua alokatzen da Benidormen. Erdigunean. Prezio onean. ☎ **943 740 628**
- Apartamentua alokatzen da La Matan (Torrevieja). Hondartza parean. Hamabostaldiak edo asteak solte. Prezio onean. ☎ **659 621 307**

LOKALAK

- Garaje itxia salgai Jausoro plazan. Plaza Handitik gertu. 16 metro koadrokoa. Prezioa: 23.500 euro. ☎ **615 787 748**

MOTORRA

- Bost ateko VW Polo 1.4 gasolina salgai, 5 urtekoa oso gutxi erabilia, gris metalizatua, aire girotua, oso ondo zaindua, beti garajejan, 22.000 km bakarrik! 7.000 euro. 675 007 661 (Dorleta). ☎ **652 716 709**

BESTELAKOAK

- Trinitateko igandean 2 erroberako patinetea galdu zen plaza inguruan, lauki zuri-beltzak ditu. Sarituko da. ☎ **943 742 574**
- Etxeko altzariak, elektro tresnak eta etxeko arropak behar dira. ☎ **676 444 171**

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira **BARREN**en eta astero *barren.iragarkilaburrak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

MODULOAK

Lana / Bestelakoak	Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra
Astebete : 5 euro	Astebete : 10 euro
2 aste : 8 euro	2 aste : 17 euro
3 aste : 10 euro	3 aste : 25 euro

Triondo **PROMOZIOAK**

BR KOLTXOIA + BISCOELASTIKOA	
90x190	459 €
135x190	684 €
150x190	684 €

MUELLEDUN KOLTXOIA, DOUBLE OFFSET	
90x190	272 €
135x190	378 €
150x190	438 €

*prezioak ez ditu hankak kontuan hartzen

Santa Ana 4 eta 6 - Tel.: 943 741 234 - Elgoibar (Gipuzkoa)



• Zorionak, **bibita!** Eguazte-
nean 2 urte egin zenituelako.
Pa! Familia eta Oihana.



• Zorionak, **Pedrol** Gaur 8
urte betetzen dituzulako
gurasoen partez muxuak.



• Zorionak, **Iker**, muxu bat
etxekoan partez. Batez ere
Iruñe, Bixen eta Oxel.



• Zorionak, **Alaitz**, zure le-
hen ustebetzean familia-
ren eta gurasoen partez.



• Zorionak, **Malen**, etxeko
guztien partez, bereziki Ju-
ne. Pozik bizi. 2 urte.



• Zorionak, **Nereal** Eguaz-
tenean 8 urte beteko ditu-
zu. Ondo pasa Aubixan!



• Zorionak, **Danel**, 2. urte-
betetzean familiakoan par-
tezt, bereziki Naroa.



• Zorionak, **Marek**. 6 urte
egin dituzulako 17an. Mu-
xuak familiakoan partez.



• Ongi etori, **Pobroll!**



• Zorionak, **Maidel**, bihar 7
urte egingo dituzulako. Gu-
rasoak eta Ander.



• Zorionak nire lagun **Pak-
torri!** Muxu handi bat Joki-
nen partez.



• Zorionak, etxeko **futbola-
rriari**, 7 urte bete dituelako.
Ondo pasa, Josu. Muxuak.



• Zorionak, **Malen**, politx
hori! Gaur 3 urte. Pa famili-
xako danen eta bereziki
Garaziren partez.



• Zorionak, **Markel**, zure 2.
urtebetetzean. Muxu handi
bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Ander**. Gaur 10
urte. Ostirala iritsi da...iritsi
da ostirala... Pa! Etxekoak.



• Pixka bat berandu, baina zorionak, **hirukote**, apirillean urtetxo bat bete zenutelako, mu-
xu potolo bat ikastolako laguntxo guztien partez.

OSPAKIZUNAK URREZKO EZTEIAK



Orain dela 50 urteko maiatzaren 21ean ezkondu ziren Beizaman **Juanito Gorostiza** eta **Consuelo Otaegi**, eta domekan berriz ezkonduko dira. Euren urrezko ezteiak ospatuko dituzte. Orain arte bezain zoriontsu izaten jarraitu dezatela opa die BARREneko lantaldeak.



• Zorionak, **Encami eta Gorka**, ondo pasa zuen urtebet-
tetzeguna. Muxu bat familiakoan partez.



• Zorionak, **bikote**, zuen urrezko ezteietan! Ondo-ondo
pasa! Familiakoan partez.

OHARRA

Erretratu bakarrekog agurra: 2 euro.
**Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza edo
handiagoga: 5 euro.** Norbait zoriondu nahi
baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino
lehen ekarri behar duzu. BARREneko
bulegora 12:00ak baino lehen, edo
barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

OKINDEGIAK

21 domeka **FOTERO**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 19 Etxeberria (Errosario)
- 20 Ibañez
- 21 Garitaonaindia-Bidasolo
- 22 Etxeberria (Santa Ana)
- 23 Fernandez
(*Goizez Garitaonaindia-B.)
- 24 Fernandez
- 25 Zabaleta
- 26 Yudego

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO
GEHIAGO:**



Egin klik

www.elgoiBAREN.net

19 barixakua

Sariak

12:30 IMH sariak

Ikastetxeko arduradunek sariak banatuko dizkiete ikasleei. IMHn.

17:30 Kiribilka

2tik 6 urtera arteko umeentzako eta euren gurasoentzako egitasmoa. Plaza Handian.

Zinema

22:00 Bideo foruma

Haizeak antolatuta, *Por fin viudas* pelikula ikusteko aukera izango da, Kultur Etxean. Hizlaria: Eskarne Larrinaga.

Dantzaldia

22:15 Zinema musikala

Biraka dantza taldeak *Zinema musikala* ikuskizuna aurkeztuko du. Herriko Antzokian.

21 domeka

Irteera

10:00 Ermuuran-Sallobentera ibilaldia

Haizeak antolatuta, Sallobentera egingo dute irteera. Eguerdian, Sigma jatetxean bazkalduko dute.

Musika

12:30 Ipuin musikalak

Inazio Bereziartua musika eskolako akordeoi taldearen emanaldia. Herriko Antzokian.

Musika

19:00 Dantzaldiak

Eguren taldearekin dantzaldia, Plaza Handian.

22 astelehena

Dantza

19:00 Kurtso amaierako jaialdia

Inazio Bereziartua musika eskolako ikasleen dantza jaialdia. Herriko Antzokian.

23 martitzena

Dantza

19:00 Kurtso amaierako jaialdia

Inazio Bereziartua musika eskolako ikasleen dantza jaialdia. Herriko Antzokian.

26 barixakua

Kirola

19:00 Nahaste Borraste

Kimetz elkarteak antolatuta, kirol ekitaldiaren 25. edizioa egingo dute. Irteera, Plaza Handian.



LUDOTEKAKO EKINTZAK

**HEMEN DAUKAGU
UDALDIA!**

22an eta 23an ludoteka goiz eta arratsaldez irekiko dugu, **10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 19:30era.**

24an Mintxetara irteera egingo dugu, **10:30etik 19:00etara**
25ean eta 26an
Zaragozara joango gara



GAZTELEKUKO EKINTZAK

**UDALEKUETARA DATOZEN
GAZTEEKIN BILERAK:**

**EKAINAK 21, DOMEKA:
DBH 3 eta 4.**

**EKAINAK 23, MARTITZENA:
DBH 1 eta 2.**

16:00etan, Gaztelekuan



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Jaika

jatetxea

Enkargatu bazkari eta afariak San Bartolome jaletarako!

Pedro Muguruza, 27 beheko - Tel.: 943 74 10 29



SAN JUAN JAIK ALTZOLAN

23 MARTITZENA

SAN JUAN BEZPERA

19:00 Txapliguak eta kanpal jotzea

20:00 Meza eta Salbea

Santuari jaietako zapia jarriko diote

21:00 Arbola jartzea

22:30 San Juan sua

23:00 Dantzaldia Zurrust hirukotearekin



24 EGUAZTENA

SAN JUAN EGUNA

6:00 San Juan adarrak jartzea

Altzolako portaletan

11:00 Prozesioa eta meza

12:00 Herri kirolak

15:00 Haurrentzako jarduerak

16:30 Mus txapelketa

Sariak:

1. saria: Afaria eta garaikurra

2. saria: Cava botila eta garaikurra

3. saria: Kafe konpletoa eta garaikurra

19:00 Parrillada

22:00 Dantzaldia

25 EGUENA

SAN JUAN TXIKI EGUNA

12:30 Auzokoen bilkura frontoian eta

zinta lasterketa

14:30 Herri bazkaria

17:30 Umeentzako jolasak

Ginkana, zezentxoak eta poniak.

Ondoren, jaien amaierako txapligu jaurtiketa

26 BARIXAKUA

18:00 Sardina jana

Altzolako jubilatuen etxeak antolatuta.



Gure gomendioa

Nahaste Borraste

Ekainak 26, 19:00etan Plaza Handian

Kimetz elkarteak antolatuta, Nahaste Borrasteren 25. edizioa izango da datorren barixakuan. Parte hartzaileek lehenengo zazpi kilometroko ibilbidea egingo dute bizikletaz. Ondoren, 25 kiloko zakua bizkarrean hartuta, 400 metro inguru egingo dituzte. Azkenik 1.500 metro egingo dituzte antxintxika.



Alzolako Urak bezero eta bizilagunei
San Juan jai zoriontsuak opa dizkizue.

Jai zoriontsuak



www.Alzola.com

txatxaran

ion sanchez

Elgoibarko hainbat gazte-
ren eskaerari erantzuteko,
2007ko maiatzean ikaske-
ta gela ireki zuen Udalak.
Kultur Etxeko sotoan jarri
zuten ikasleentzako gu-
nea, eta azterketa garaian
astelehenetik domekara
arte egoten da zabalik.
Gaur Ion Sanchezekin egin
du berba BARREnek. 22
urteko gazte hau Kimika
alorreko ingeniari tekn-
nikoa ikasten ari da, eta
sotoan ikasteko oso giro
ona dagoela adierazi du.



“Etxean baino gehiago kontzentratzen naiz ikasketa gelan”

Noiztik joaten zara ikasketa gelara?

Nire gelako batzuk hasi ziren ikasteko leku baten eske, eta Udalak ikasketa gela ipini zuen sotoan orain dela hiru urte inguru. Etxean aspertzen naizenean bertara joaten naiz.

Ikasteko leku aproposa dela uste duzu?

Nik gustura ikasten dut ikasketa gelan, etxean baino gehiago kontzentratzen naiz. Etxean entretentzeko gauza asko daude: telebista, ordenagailua... Gainera, ikasketa gelan lagun batzurekin elkartzeko, eta tarteka kafetxo bat hartzen dugu, dekantua egiteko.

Jende asko ibiltzen da?

Bai, asteburuetan, batez ere. Ni ez nintzen egon joan zen zapatuan, baina sotoa beteta egon zela kontatu didate. Lan egunetan hamar-hamabost lagun egoten gara. Beste batzuk liburutegira joaten dira, kontsultako

liburuak behar izaten dituztelako, baina ez da nire kasua.

Batzuentzako liburutegia aproposagoa da ikasteko. Zer uste duzu?

Nire ustez liburutegian mugimendu handiagoa dago. Jende asko ibiltzen da atzera eta aurrera, zarata handiagoa egoten da, eta asteburuetan gainera, itxita egoten da. Sotoa, ordea, goizeko 9:00etatik gaueko 21:00etara irekitzen dute, egunero. Ikasteko giro ona dago, jendea ikastera joaten da, eta isil-isilik egoten da.

Nota hobek ateratu dituzu ikasketa gelara joaten zarenetik?

Ez, lekuak horretan ez dauka zerikusirik. Egia esanda, ikasturte hau gogorra egin zait. Hiru ikasgai bakarrik falta zaizkit karrera amaitzeko. Gero ez dakit zer egingo dudana, baina seguruenik ikasten jarraituko dut. Lan egiteko urte asko izango ditut gero ere!

Bologna sistemak eraginik izan du zure kasuan?

Nire ikasketak hemen amaituko balira, ez luke Bolognak eraginik izango. Ikasten jarraitu nahi badut, zubi-kurtsoren bat egin beharko dut, Bolognarekin ikasketa teknikoak lau urtekoak izango direlako. Egia esan, ez daukat informazio askorik. EHUK ez digu informazio askorik eman. Bi urte inguru daramatzagu Bolognari buruzko notiziak entzuten, eta hitzaldi bakarra izan dugu. Ikasle Abertzaleak taldekoek eman digute informazio gehien.

Unibertsitateko hautaprobak izan dira oraintxe. Nola gogoratzen duzu garai hura?

Une hartan oso gaizki pasatu nuen. Irakasleek urte osoa pasatu zuten selektibitateari buruz hizketan, eta mundua amaitu behar zela ematen zuen. Orain konturatzen naiz ez zela horrenbesteko izan.

lanbide

Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

Lanbide Elgoibar

Gabriel Krutzelaegi, 8
20870 Elgoibar
Tel.: 943 744 425
Faxa: 943 740 618
e-mail: elgoibar@lanbide.net
www.lanbide.net

Lan bidea
El camino
hacia el empleo



Lanbide, Eusko Jaurlaritzak eskuera jartzen dizun Euskal Enplegu Zerbitzua da eta lana bilatzeko prozesuan laguntza eta orientabidea eskaintzen dizu.

Beren lehen enplegua bilatzen ari direnei, langabezian daudenei, lan-merkatura itzuli nahi dutenei eta lanean arituta ere, enpleguz aldatu nahi dutenei zuzentzen gara eta baita langileak behar dituzten enpresei ere.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTI
DIBERTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES

EUROPAKO ELKARTEA
UNION EUROPEA



Europako Funtzu Sozialak
Fondo Social Europeo

GOKI ERREFORMAK

Olaso Poligonoa 15 zbk. - 88 pabilioia
Tel.: 943 744 223 - 943 744 640 - 943 742 880
Faxa: 943 744 587
20870 Elgoibar

- ◆ ESKAINTZA BEREZIAK
- ◆ ESPOSIZIO ALDAKETA
- ◆ PREZIO ERAKARGARRIAK
200€-tik HASITA




1.200 €



300 €



800 €





520 €

uda'09

AIRE LIBREKO ZINEA

Elgoibar / 22:30 Foruen plaza



Elgoibarko Udala
kultura Salla

Uda'09
Aire Libreko Zinea
22:30 Foruen plaza